



Efoma.—Batikano'tik.

Urte Deuna dala-ta, Efoma'ra eltzen diran bidezkunde-taldeak ez dau amairik. Batzuk bakafik aiatutako ditugu. «Notre-Dame du Salut» bazkunak eraldutako, bidezkundera 500 bidezti. Itzaldi edefa pantzeraz egin eutsen, Aita Santuak; Torino ta Milan'go kistat Ilasti Anayen 300 ikasle; Baviera'ko 25, beneditafak zuzenduta; 60 ingalandar; 160 olandar. Rumania'tik talde bat 500'koa, Stelian «ministro» izandakoak zuzenduta; Krakobia'tik 45 irakasle ta 45 lekameen ikasle; Torino'ko 70 neskatila ikasle; Loreto'tik eta Gorizia'tik 20'na ta Paris'ko 35 neskatila ikasle.

Venezuela'tik talde edefa, agurtu ondoren Riga'ko 102 ikasle; Beljika'tik beste 100; «Fefari» Bazkunak eraldutako 300; Genova'ko Maristen 40 ikasle; Marse-la'tik 66 ikasle eta Reggio'tik 55 ikasle. Onez gañera egun atan Txeko-eslovakia'tak 750; eta ale-manda'fak 2 500.

Polonia'tak lenengo bidezkundera Odrozenie bazkunak eralduta 500 eldu dira. Aita Santuak lenengo agufa polakeraz egin eutsen. Beste amar taldetan 400 bat ikasle ta 50 pantzetar inkenieru eta 200 ikasle euren guraso ta senide askogaz artu ondoren, 400 ingalanda'fak ikertu eben. Ofez gañera Torino'tik 345 bidezti Kardenala buru dabela eldu ziran; Freiburg, ta Losanna'tik 300. 250 yosulaun ikasle Paris, Dublin, Liege ta abar.

Baita ikertu dabe 200 arkitek-tok, batzafarako latefi gustietatik batutakoak; adirazten emon eutsen eleiza-gintzetan efizalekeriei baño Eleiza'ren gogoari begirata egiten alegintzeko. Baita Efoma'n batuta diran agiñizti-osagilean talde eder batek ikertu dabe.

78 urte ta 750 kilometro oñez.

Kayetano Finotello, 78 urtedun agurea, Venezia'tik Efoma'ra oñez yoan da, Yubileoa irabazteko asmoaz. 750 kilometro oñez ibili ondoren Aita Santua'ren auean aurkitu danean, luferaño burua makurtu ta, afen, bere obena parkatu ta onspena emoteko, negar baten, eskatu dautso. Ba' dira ondño be kistar zintzoak!

Zoriundun eta Deun auziak.

Oñia 2'n Batikano'n Aita Santuak, kardenal batzafa izango dau Fournet Ander zorunduna deuen izendegian ipini leiken erabagiteko. Ofetarako Efoma'tik 150 kilometro inguruan bizi diran kardenal, Gotzain, lekaipuru ta abar, euren bayetz ala ezetza emon bear dabe.

Onez gañera Batikano'n azterzen dagozan zorundun auziak 500 dira eta deun-uziak 50. Zorundun iragarteko bidean dagozan artean iru Aita Santu dagoz: XIII'n Benedito; IX'n Pio eta X'n Pio, baita lau kardenal, pa-priarka bi, 42 Gotzain eta 258 abade.

25 auzi kistar lauenak dira, eta onein artean dagoz Kunegunde Polonia'ko bakanderea (efegiña), M. Klotilde Cerdeña'koa ta Saboya'tar M. Kristiñe Sizilia'ko bakanderea. Zorundun eta deungayen artean, onexek dagoz: 151 pantzetzatar, 36 yosulaun; 22 domekatar, 13 Beferoskunder-Gopatzakoak, 12 karmeldar eta 12 elazardar. Eta ondño iñor asartuko ete da oin deunik ez dago esaten? Iñoz baño geyago dagola erantzungo geunskio.

Zoriondun iragartzea.

Urte Deuna dala-ta, aurtun zoriondun eta deun iragartzeak ugari izango dira. Orain arte iragafi diranak, onexek dira. Yofala 30'n Batikano'n izango da M. Peletier lekamea zorundun iragarteko eleizkizuna; Oñia-7'n Bingene Gerosa agurgafiarena; Oñia-14'n Gemma Galgani'rena; Oñia-21'n Pignateli aba yosulauna; Oñia-28'n Laboure Katariñe, Bingen deunaren lekamea. Baita Bagila-4'n Deun iragafiko dabe Fournet An. abade zorunduna. Eleizkizun onetarako Aita Santua goizeko zortziretan Batikano'ko eleizara yatsi ta deun iragarteko eleizkizunean deun bafiaren aintzaz lenengo yaupea abestuko dau.

Pantzetar gaste katolikotafaren batzafa.

Lyon'en ospatu dabe pantzetar gaste katolikotafak, bakearen aldeko batzafa. Batzar onetara, 6.000 gaste eldu dira, iru kardenal eta 27 Gotzain. Itzaldi ta ezta baidetako gaya auxe izan da; kistar-arauz bakea eraltzea. Gizarte-gayak, guda ta gentza ta aber-iatzazkoak itzaldi sakonetan azaldu ondoren, Maurin Lyon'go kardenal agurgafiak itzaldi baten bere poza ta eskar ona agertu eban, ain gai sakonak eta ain ederto azaldu ziralako. Gustien izenean Aita Santua'ri agur bat bialdu eutsoen eta berak eskefak emon, adoretu ta Bere onspena emonaz erantzun eutsen. Badira ofaitik gaste zintzoak be, Katoliko-Ekintzan gizon lez yokatzen dabena.

Bilbao'ko Aurrezki-Kutxa Udaldarra

ESTACION, 3

Gizarte-lagunarrizaf bazkun onarlsruua

Udalak erantzun eta bere urgazpian Lan eta Aurrezki - Altsentzarak artua

Ikastola, Umeen Aurrezki-kutxa, Onegintza, Jakintza, Aur-urgazpina, Amatasun-laguntza

1932'gko. Lotazila'ren 31'gnian ipinitako dirutza:
182.741.638,37

Bere irabazi ta onura gustiak gerorako dirutzea geituteko eta Bizkaya'n iraso ta sortu dauzan ONAURKI EKINTZAI eusteko dira.

Biga'ren Landola ta Baitura etxia:

Plazuela de los Santos Juanes, San Anton aurian.

44 eritan daukoz ordaingoak. Barakaldo'n Baitura-etxia be bai.

ABADE YANTZIAK

ONDO TA MERKE

RICHARDO FAURA

Gazteiz'en (Vitoria) Ortiz de Zarate'n kalian 5—1.º

Kanada'ko katolikotafak.

Kanada'n katolikotafak, 1931'ko zenbakuntzak diñonez, 4.283.388 dira. Lau uri andienatetik baten, Montreal'en, katolikoak dira ugarien, eta Quebec'eko erkian bakafik katolikotafak 2.463.160 dira; Ontario'n 744.740; Manitoba'n 187.693; Columbia Britanica'n 90.852; Saskatchewan 233.979; Nova Brunswick'en 188.088.

Ingalanda'ko katolikotafak zabal-kundearen alde.

Cardiff'eko Gongotzain Mostyn agurgafia buru dabela, London'eko yolastokian zabalkunde alde batzar bat egin dabe. 100.000 katolikotar bildu dira, eta erabagi begiko bat artu dabe. Asmo zintzoa artu dabe alegin gustiak egiteko *miñoi bat* sterlina batzen, Ingalanda'n eta Gales'en katoliko ziñestea zabaltzen alegiñak egiteko. Katoliko bizitazuna ofefantxe agertu bear, esku zabalean, baña batez be biotz sutuan, biotz zabala dabena esku zabal berez izan oi da ta.

Kristo-Bakaldunaren aintzaz.

Mont Blanc Alpes'etan Kristo-Bakaldunaren irudi eder bat iragiteko asmoa artu dabe. Delasint'eko txauburu Houches yanaren asmoa izan da. Gustiz 30 metro garai izango ditu, eta azpian amar neurkin metro'ko txau-no (kapiñia) bat egingo dabe. Gure Yauna eskua yazo ta onesten agertuko da. Pantzetar Erkal «laiko» a gora-bera, katolikotafak ederto lan egiten dabe. Emengoak «basatikeriak» noiz itxiko ete ditue?

Genar deunaren alatzia (miraria).

Napoles'en, Genar deunaren odola gordeta daben ontzitu bat dago. Odol ori beti gogortuta dago, baña, urtero Iraia-19-26'ra berez urtuta odol izuri-bafi lez agertzen da. Bestela oso glxtitan. Ba egun gitxi dala, pantzetar 2.000 bidezkunden au'ean, Askalesi kardenala, ontzi ori ipinten doala bapatean urtuta gelditu zan. Gustiak afituta gelditu ziran eta izugarizko gizostea bilduzan alatz ori ikusi ta eskefak Yaunari emoteko.

M.'tar G.

Euskal-erriko izparrak

BIZKAYA Mañaria.

Bilbo.

Muxika'ko «Lorea» ri.

Neure adizkide maite ofi eskefak emon beafean aurkifuten naz zeuk artuten dozun arazuagaitik. Badakit nekatu biarko dozule agindurikoa betetan baña ez lafitu ofegaitik zuk nai badozu egin zeinkena da aste batean Eleiz aldeko izpafak bidaldu ta bestean Arietzakoak.

Bada nik eneuke gara neugaik Eleiz aldekoak utzik geratu daitezana, ta nik badakit zeuk danokaz ondo egon gurako dozula ta ofegaitik azketsiko deutzut.

Badakit auztezkundiak be zelán izan dozuezan ta abertzaliak zelán garaile urten dozuen be. ¿Zelán ez olako emakume langilak egon ezkerro? neuk be pozik lagunduko neuntzuen ta or izango nintzan baña autarkirik eztauket orandiño ta beste baten izan bearko dau ta ez nekatu neure aitzari Muxika'ko Emakume abertzale batzakuok. Jaungoikoa ta Lege-zafaren alde egiten dogun gustie goiko jaunagana joan gaitzean argi egiteko izango da ta.

EREKA TXORIE

JANTZIAK

gizonentzako Teodoro-nian egingotzue iñun beizen ondo eta lauko asko kendubarik.

TOVALINA Y C. A. L. D.

SOMERA TT BILBAO

Lenengo oñian sartukeria dendatik.

Mallabi.

Igazi dan igandean emen izan doguz 40'enbat mendigoxale, Durango, Otxandiano, Abadiño, ta beste efi batzuetatik etofita; eurotatik lauk itz egiñ eben, tartean euskel abesti gozoak abestuaz. Abertzaliok onetan ari dirala, gure afe-etzeko emakume batek, leyoa zabaldu ta, era onetan mintzatu zan: «Kanpotik etofa ta prediketan? Gauz-onik ekañiko dabe ofek, ta ofei entzun? Beste kolorekuek atera datozanian jaramonik bez?

Gauza aundi bat esan baleu lez, bri-brau itxi leyoa, ta saguek, katue ikusiaz batera orna suluetan sartu ta eskutatzen diran lez, alden du zan. Emakume, Jakiñean, noiz itxi dogu iñor yaramonik barik? Abertzaliok, zu ta zure kolorekuek aitik gaizki mintzatu al ziran? Guzturi-befitxuoi ixilik egon zaitez. Eliz gizonakaitik be, bai dakit, mar-mar askotxo egiñen dozuna: Karlatafak ofela oldotuten badabe, epaituta dagoz.

Auteskundietan ondo urten ebelako edo, biaramonean, Areitio'ko basatxaunon esateko, mesa bat euken eskiniñta Ermuar abertzaliak; egun au jaitzat artu eben lez, ona be eldu ziran batzuek, ta emengo karlatafok pi pertuta egoazan ainbaten, bada, ofek, arek, bestiek zer esan ei eben; ta len aiatu dan emakume ori be, gaur be ezin egon ixilik; mutil koskor batek, «Gora Euzkadi» esan dabela ta «fuera prakadun ori» esatean, ez da lotsatzen. «Galdaran» esniek diraki; «topiñan» odolok, Karlatar benetakuak, ofen baño leyalagoak dira.

POSPIL

ELIZ-ABESTIAK Donostia'ko Argia'k argitaratuak. 9 lko.

Oñia'ko lorak.

Andra Miren'en opaz urtero ospatuten diran Ofiñako loraen iñarkun deuna, astelenian asi zan. Eta Neskutza'ren irudi edefa, egunoro, lora zuri edefez spainduta ikusten dogu ¡Aintza geure Ama'ri!

Ezkontza.

Larünbatian ezkontu ziran Ortuoste'tar Miren «Artzubi»ko neskatila ta Gorospe'tar Saturnin «Landaluze»ko mutila. Eztegu zaratatsua egin eben. Zorijonak.

Juan-etorrijak.

—Aste ontan Lafabetzu'n ixan da Bañenetzea'tar Polentzi abade jauna.

—Algorta'tik etofi zan Magunazelaya'tar Joseba.

—Egun batzuk igaroten emen aurkitzen da Ortoste'tar Bitor, Ereño'ko mutil gaztetxua.

Zaldibar'era.

Igande afatsaldian, Zaldibar'en ospatu zan jai edefera, emetik be tafant (auto) andi bat bete lagun juan gintzazan. Eta bertan, Goenaga ta Urdangarin andrañoak eta Biteri jaunak egin ebezan berbaldi sakon eta edefak, atsegiñez entzun genduzan; bafa, Arbeloa jaunak, azkenez, E. A. B.'ri zuzendu eutsozan itz sutu ta egokijak be oso atsegiñez entzun gebazan.

Oñako jai edefian, afatsaldia ederto igarota. iñuntzian pozez etxeratu gintzazan danok.

Agurtu.

Urkiola'n eguna igarota etorzala, astelen afatsaldian agurtu genduzan emen Durango'ko abertzale pilo bat. Eta euren artian emakume asko.

Agazkiñak ugari.

Astare goxian, amalau egazkin batera samar, Bilbao aldetik Gazteiz'efantza igaroten ikusi genduzan. ¡Zaratarik eta bufundarik eroan eben! Ainbeste egazkin (aidoflano) batera egundo ikusi eztozuzalako edo, geure begijok, gorantz atsegiñez zuzendu genduzan. Oстера, Muga'fako sai koñauak, ego bako jentia lañua-ziar egurastuten ikustian ikerrata, artzuloetan gorde ziran. Ezta gitxiagorako be...

Mundu-ziar.

Igaroriko astian agertu zan, txifingutzez ludijari bira egiñen diñarduban doiztar (alemandar) gixon gaste bat. Eta, burdi txikijaren ganian etofi zan afen, janarijak egiteko tresnak eta gabak igaroteko oge-tolestua ta abar gauzarik asko aldian ekañi eban.

Paris'tik etofela, esan eban, eta Gazteiz'erantza joyala, andik gero Madrid eta Bartzelona'ra ta juateko ustiaz. Leku zelayetana, egunian, eun kilometro bide ta aldapetan befogeta igaroten ebala be, esaten ekin eban. Gu bafiz, berari entzuten ixilik...

Oña ba, irakurle, zenbat modutara ludijan jentia bixi garan... Ofaitik, izpafau, gure efioko aguretxo batek irakurten dabenian, pipari pautada bat eragiñaz ben-ben «pilosopo» baten eran esango dau: «Alpe'fak asmu asko».

MAÑARIKO

Eleizkixuunetarako Argizagizko kandelak

Eleizlak aginduta daukazan erakuak

Kandela motak: MAXIMA ta NOTABILI, zigurtasunaren ikuratzen, azkenengo aginduen arauz. Kandela oneikaz CAPITEL GAUNA erabili ezkerro, argizagi asko aufeztuten da.

QUINTIN RUIZ DE GAUNA'REN SEMIA
GAZTEIZ.-ARABA (VITORIA)